BIGARREN FASEaren jarduera proiekturako Laguardiako udalerrian, Cerro de la Mesan.

Euskal Autonomia Erkidegoko Ingurumena Babesteko martxoaren 9ko 165/1999 Dekretuaren 3.2 artikuluan eta horrekin bat egiten duten gainerako xedapenetan araututakoa betez, proiektu horri buruzko espedientea hamabost egunez egongo da jendaurrean, jarri nahi den jarduerarengatik bere burua kaltetuta ikusten duen orok egoki deritzen oharrak egin ahal izan ditzan.

Laguardia, 2009ko martxoaren 10a.– Alkate-lehendakaria, MARIA JESÚS AMELÍBIA ARGOTE.

## LANTZIEGO

**1999**

**“Lantziegoko udal igerilekuak konpontzeko lanak” behin betiko esleitzea.**

Udalbatzak, 2009ko martxoaren 10eko aparteko bilkuran, erabaki zuen CRUPSA-Constructora de Redes Urbanas y Pavimentaciones, SA enpresari “Lantziegoko udal igerilekuak konpontzeko” lanen kontratua behin betiko esleitzea, 120.989,69 eurotan.

Guztiek jakin dezaten argitaratzen da, Sektore Publikoko Kontratuei buruzko urriaren 30eko 30/2007 Legearen 138. artikuluan xedatutakoa betetzeko.

Lantziego, 2009ko martxoaren 11.– Alkatea, MANUEL ZABALA GONZÁLEZ.

## LEGUTIANO

**1967**

**Aurkitu ez diren jabe mugakideei jakinarazpena egitea**

EUSKATFUND SL enpresak baimena eskatu du udalerri honetako Goiaingo industrialdeko Subinoa kaleko 4an urtzeko makinak eta produktu osagarriak bildu eta merkaturatzeko.

Ezin izan zaie Raposo Bedia Santiagori, Carrocerías El Gallo SAri eta Lavandería Mikeldi Gojain SAri jarduerarako baimen eskaera jakinarazi, hau da, ez da bete 4/1999 Dekretu Legeak —Herri Administrazioen Araubide Juridikoaren eta Administrazio Prozedura Erkidearen azaroaren 26ko 30/1992 Legea aldatzen du— 3. artikuluan araututakoa.

Hori dela-eta, epatu egiten da honako jakinarazpena egiten denetik 15 egunean eskaera honen inguruan egokiak iruditutako oharrak egin ditzan, Euskal Autonomia Erkidegoko Ingurumena Babesteko otsailaren 27ko 3/1998 Lege Orokorrak 58. artikuluko 1. eta 2. paragrafoetan araututakoari jarraituz. Eskaerari buruzko espedientea udal bulegoetan dago eskuragarri.

Eta halaxe jakinarazten dizut eskatzailearen mugakide zaren heinean.

Legutiano, 2009ko martxoaren 11a.– Alkatea, PEDRO JULIÁN BERRIOZABAL ARREGUI.

## ERRIBERA BEITIA

**1849**

**Behin betiko onartzea espazio publikoetako bandalismoari buruzko ordenantza.**

2009ko urtarrilaren 14an egindako bilkuran udalak hasieran onartu zuen ondoren zehazten den ordenantza onartzeko asmoz prestatutako espedientea. Jendaurrean erakutsi zen bitartean inork ez zuenez erreklamaziorik aurkeztu behin betiko onartu da. Horrela, ordenantzaren testu osoa hitzez hitz ematen da:

de SEGUNDA FASE DE ACTIVIDAD DE BODEGA DE VINOS, en Cerro de La Mesa, en este Término Municipal de Laguardia (Álava).

En cumplimiento de lo prevenido en el art. 3.2 del Decreto 165/1999 de 9 de marzo, General de Protección del Medio Ambiente del País Vasco y demás disposiciones concordantes, se abre información pública por término de quince días, para que quienes se consideren afectados de algún modo por la actividad pretendida, puedan hacer las observaciones pertinentes.

Laguardia, 10 de marzo de 2009.– La Alcaldesa Presidenta, MARIA JESÚS AMELÍBIA ARGOTE.

## LANCIEGO

**1999**

**Adjudicación definitiva “Reparación Piscinas Municipales de Lanciego”**

Este Ayuntamiento Pleno, en sesión extraordinaria celebrada el día 10 de marzo del 2009, ha acordado adjudicar definitivamente el contrato de ejecución de las obras de “Reparación de las Piscinas Municipales de Lanciego” a la empresa CRUPSA-Constructora de Redes Urbanas y Pavimentaciones, S.A., en el precio de 120.989,69 euros.

Lo que se hace público en cumplimiento de lo dispuesto en el artículo 138 de la Ley 30/2007, de 30 de octubre, de Contratos del Sector Público.

Lanciego, a 11 de marzo del 2009.– El Alcalde, MANUEL ZABALA GONZÁLEZ.

## LEGUTIANO

**1967**

**Notificación a colindantes no localizados**

Por EUSKATFUND S.L., se ha solicitado licencia para desarrollar la actividad de Almacenamiento y comercialización de maquinaria y productos auxiliares de fundición, cuya actividad se desarrollará en la calle Subinoa número 4 del Polígono Industrial de Goiain, de este término municipal.

No habiéndose podido practicar la notificación a Raposo Bedia Santiago, Carrocerías El Gallo S.A. y Lavandería Mikeldi Gojain S.A. de la solicitud de licencia de actividad, de conformidad con lo dispuesto en el artículo 3 del Decreto Ley de 4/1999 de modificación de la Ley 30/92 de 26 de noviembre de Régimen Jurídico de las Administraciones Públicas y del Procedimiento Administrativo Común.

En cumplimiento de lo dispuesto en los artículos 58.1 y 2 de la Ley 3/1998, de 27 de febrero, General de Protección del Medio Ambiente del País Vasco, se le emplaza para que en el plazo de 15 días a partir de la presente notificación, pueda formular cuantas observaciones se estimen pertinentes relacionadas con la mencionada solicitud cuyo expediente se halla de manifiesto en las oficinas del Ayuntamiento.

Lo que pongo en su conocimiento como colindante que es del solicitante.

En Legutiano, a 11 de marzo de de 2009.– El Alcalde, PEDRO JULIÁN BERRIOZABAL ARREGUI.

## RIBERA BAJA

**1849**

**Aprobación definitiva de la Ordenanza sobre vandalismo en espacios públicos.**

Habiendo sido aprobado inicialmente por este ayuntamiento, en sesión celebrada el día 14 de enero de 2009, el expediente confeccionado para aprobar la ordenanza que a continuación se detalla, y no habiéndose presentado reclamaciones durante el período de su exposición al público, queda definitivamente aprobado, para lo que se hace público el texto integro de la ordenanza, que copiado literalmente, dice así:

HITZAURREA

Herritar guztiek gizalegez erabili behar dituzte Erribera Beitiako udalerriko espazio publikoetan sartzen diren ondasunak eta instalazioak.

Horri dagokionez, gure erkidegoan badira jarrera arduragabea duten banako eta talde gutxi batzuk; gizalegegabe erabiltzen dituzte hiriko altzariak, iturriak, kale argiak, parkeak, lorategiak, zirkulazioko seinaleak, udal instalazioak, irakaskuntzarako eraikin publikoak, osasun arloko eraikinak eta bestelako ondasunak. Ondorioz, horiek guztiak konpontzeko gastuak gero handiagoak dira.

Era berean, bide publikoaren kontserbazio egoerari dagokionez, dagoeneko jarri da indarrean Tokiko Gobernua Modernizatzeko Legea; eta horregatik komeni da espazio publikoak ondo erabiliko direla bermatzea. Izan ere, aurreko ordenantzetan ezarritako zehapen araubidea eta diziplina araubidea hartuko dira eta, horrez gain, bermatu egingo da hirigintza planeamenduan ezarritako zuzentarauak betetzen direla, zerbitzu publikoak ematen direla eta jabari publikoko ondasunak erabiltzen direla. Hori, betiere, erabilera orokorrerako bide publikoan hainbat agente dagoela kontuan hartuta.

Horretarako arautegia behar da, udalerria degradatzen duten eta bizi kalitatea okertzen duten jarrera antisozialak zehazteaz gainera arau hausteak eta horiei dagozkien zehapenak ezarri ditzan.

Hori dela bide, Toki Araubidearen Oinarriak arautu dituen apirilaren 2ko 7/1985 Legeko 25. artikulua betez ondasun publikoen kontserbazio eta zaintzari, toki publikoen segurtasuna mantentzeari, hirigintza zaintzari eta ingurumena babesteari dagokionez, ordenantza hau egin da Erribera Beitiako espazio eta gune publikoak eta, halaber, zerbitzu eta erabilera publikoa bermatzen duten instalazioak eta altzariak behar bezala kokatu eta zaintzeko asmoz. Ordenantza kapituluka banatu da.

KAPITULUEN AURKIBIDEA

I. KAPITULUA. XEDAPEN OROKORRAK

Lehenengo kapitulu honetan arau orokorrak ematen dira; ordenantzaren xedea, aplikazio eremua eta irismena garatzen dira eta aplikatu beharreko araudia zehazten da.

II. KAPITULUA. ONDASUN ETA INSTALAZIO PUBLIKOEN UDAL INBENTARIOA

Jabari publikoko ondasun eta elementuen udal inbentario bat ezartzen da, teknologia berrien bidez sistematizatzeari erreferentzia argia eginez.

III. KAPITULUA. ESPAZIO PUBLIKOEN OKUPAZIOA INTERES OROKORREKO XEDEETARAKO EDO BIDEETAN INFORMAZIOA ETA SEINALEAK JARTZEKO

Beste administrazio batzuek, erakundeek edo agente turistikoek espazio publikoak interes orokorrerako edo bideetan informazioa eta seinaleak jartzeko okupatzeari buruzko arauak ematen dira.

IV. KAPITULUA. ESPAZIO PUBLIKOETAN DAUDEN HIRI INSTALAZIOAK ZAINDU ETA ERABILTZEKO ARAUAK

Espazio publikoetan dauden hiri instalazioak zaindu eta erabiltzeari buruzko arauak ematen dira. Zerbitzuei lotutako agente eta enpresa batzuk.

V. KAPITULUA. KAUTELAZKO NEURRIAK, ARAU HAUSTEAK ETA ZEHAPENAK.

KALTEEN ERREKLAMAZIOA

Udalerriko jabari publikoa osatzen duten ondasunak eta espazioak babesteko behar diren prebentzio edota zehapen neurriak ematen dira, baita arau hauslearen bidegabeko aberastea ekiditeko neurriak ere. Beraz, horrela bermatuta geratzen da egindako kalteak leheneratu egingo direla eta erkidegoari egindako kaltea ordaindu egingo dela.

VI. KAPITULUA. SUSTAPEN NEURRIAK. DIRULAGUNTZAK ETA SARIAK

Kapitulu honetan, toki administrazioaren sustapen jardueraren barruan neurri batzuk ezartzen dira herritarrei gizalegezko hezkuntza emateko eta herritarren portaera solidarioak saritzeko.

PREÁMBULO

Es obligación de todos los vecinos actuar cívicamente en el uso de los bienes e instalaciones que integran los espacios públicos del Municipio de Ribera Baja.

A este respecto existen en nuestra comunidad actitudes irresponsables por parte de individuos y colectivos minoritarios que se manifiestan de modo incívico en el mobiliario urbano, fuentes, farolas, parques, jardines, en las señales de tráfico, en las instalaciones municipales, edificios públicos docentes, de salud… y en otros bienes, que suponen unos gastos de reparación cada vez más importantes.

Igualmente y por lo que se refiere al estado de conservación de la vía pública y dada la entrada en vigor de la Ley de Medidas para la Modernización del Gobierno Local, es conveniente garantizar el buen uso de los espacios públicos, adoptando el régimen sancionador y disciplinario previsto en anteriores ordenanzas y garantizando el cumplimiento de las directrices fijadas en el planeamiento urbanístico, la prestación de los servicios públicos y el uso de los bienes de dominio público; todo ello dada la multitud de agentes que operan en la vía pública, destinada al uso general.

A tal fin es necesario disponer de un texto normativo que, a la vez que defina las conductas antisociales que degradan el municipio y deterioran la calidad de vida, tipifique las infracciones y sanciones correspondientes.

Por todo ello, en cumplimiento del artículo 25 de la Ley 7/1985,de 2 de abril, de Bases del Régimen Local, en materia de conservación y tutela de los bienes públicos, de protección de la seguridad de lugares públicos, de policía urbanística y de protección del medio ambiente, y a fin de garantizar la correcta instalación y conservación de los espacios y zonas públicas de Ribera Baja y de las instalaciones y elementos de mobiliario que garantizan el servicio y uso público, es por lo que se ha elaborado la presente Ordenanza dividida en los siguientes capítulos.

SUMARIO DE LOS CAPITULOS

CAPÍTULO I. DISPOSICIONES GENERALES

En este Capítulo primero, se contienen las disposiciones normativas de carácter general y se desarrolla el objeto, ámbito de aplicación y alcance de la Ordenanza, así como el régimen aplicable.

CAPÍTULO II. INVENTARIO MUNICIPAL DE BIENES E INSTALACIONES PÚBLICAS

Se establece un inventario municipal de bienes y elementos de dominio público con clara referencia a su sistematización a través de las nuevas tecnologías.

CAPÍTULO III. OCUPACION DE LOS ESPACIOS PUBLICOS PARA FINALIDADES DE INTERES GENERAL O INFORMACION-SEÑALIZACION VIARIA

Normas relativas a la ocupación de los espacios públicos para finalidades de interés general o información-señalización viaria por otras administraciones, entidades o por agentes turísticos.

CAPÍTULO IV. NORMAS DE CONSERVACIÓN Y UTILIZACIÓN DE LAS INSTALACIONES URBANAS EN ESPACIOS PÚBLICOS

Normas de conservación y utilización de las instalaciones urbanas en espacios públicos. Diversos agentes y empresas de servicio.

CAPÍTULO V. MEDIDAS CAUTELARES, INFRACCIONES Y SANCIONES.

RECLAMACIÓN DE DAÑOS

Se trata de facilitar las medidas de prevención y/o sanción necesarias para la protección de los bienes y espacios que integran el dominio público local, y evitar el enriquecimiento injusto del infractor, garantizando la reposición de los daños causados y resarcir el daño producido a la comunidad.

CAPÍTULO VI. MEDIDAS DE FOMENTO. SUBVENCIONES Y PREMIOS

En este capítulo incluimos una serie de medidas dentro de la actividad de fomento de la Administración Local, que garantice la educación cívica, y que premien los comportamientos solidarios de los ciudadanos.

XEDAPEN GEHIGARRIA

Xedapen honetan udalak Barne Ministerioarekin martxan ipinitako lankidetzarako neurriak azaltzen dira. Neurri horien bidez, gizarteratzea lortzeko ordezko zigorrak bete ahal izango dira.

XEDAPEN INDARGABETZAILEA

Xedapen honen bidez ondoriorik gabe uzten dira sektore esparru horretan indarrean dauden udal ordenantza batzuetan jasotako neurriak eta zehapenak.

AZKEN XEDAPENA

**I. KAPITULUA.- XEDAPEN OROKORRAK**

1. artikulua.- Ordenantzaren xedea.

Ordenantzaren helburu nagusiak honakoak dira:

1.- Herritarren bizikidetza alda dezaketen jardunei aurrea hartzea, eta udal titulartasuneko ondasun publikoak eta Erribera Beitiako udalerriko hirigintza eta arkitektura ondarea osatzen duten instalazio eta elementu guztiak babestea, inork eraso ez ditzan, alda ez ditzan edo horiek bidegabe erabili ez ditzan.

2.- Edozein ekintza edo ez egiteren bidez ondasunen edo espazio eta zerbitzu publikoen erabilera muga dezaketen edo jabari publikoko ondasunetan kalteak eragin ditzaketen jardunen ondoriozko arau hausteak eta zehapenak sailkatzea.

3.- Espazio publikoak bultzatu eta dinamizatzea, xede publikoari eta interes orokorrari lotutako kultur eta gizarte jarduerak sustatzeko.

2. artikulua.- Aplikazio eremua.

1. Ordenantza honetan arautzen diren babes neurriak udal titulartasuneko zerbitzu ondasunei edo erabilera publikoei buruzkoak dira, hala nola: kaleak, plazak, pasealekuak, parkeak eta lorategiak, zubiak, aparkalekuak, iturriak, estatuak eta eskulturak, eserlekuak, kale argiak, apaingarriak, bide seinaleak, zuhaitzak eta landareak, edukiontziak eta paperontziak, hesiak, zirkulazioko seinaleak eta izaera bereko edo antzeko izaerako gainerako ondasunak.

2. Honakoei ere aplikatuko zaizkie babes arauak: eraikin publikoak eta horien barruko eta kanpoko alde guztiak (patioak, arkupeak,…), zentro kulturalak, ikastetxe publikoak, osasun zentroak, haurtzaindegiak, kirol instalazioak eta gertaera edo jairen bat ospatzeko egiten diren behin-behineko edo iraupen gutxiko instalazioak.

3. Ondasun komunei edo jendeak ikusten dituen ondasunei lotutako eremuak ere hartzen ditu ordenantza honek, nahiz eta titulartasun publikorik ez eduki. Udalak beretzat gorde du egintza horiek zehatzeko ahala, baina ez ditu ordainduko.

3. artikulua.- Indarreko araudia.

Oro har, ordenantza honetan araututako obrek indarreko arau eta xedapenak beteko dituzte.

4. artikulua.- Espazio publikoko elementuen eta instalazioen erabilera.

Bideko eta espazio publikoetako elementu eta ondasunak dira eta, ondorioz, titulartasun publikokoak eta erabilera komun orokorrerako dira, jarraian azaltzen diren ondasun eta elementuak:

- Erribera Beitiako udalerriko parke, kale, plaza, fatxada eta abarretan dauden monumentu eta iturri apaingarriak, zutabeak, gurutzeak, identifikazio mugarriak, kale argiak, etab.

- Zuhaitzak, zuhaixkak, lore multzoak, jardinerak, etab.
- Ur harguneak, hodiak, parkeak eta lorategiak ureztatzeko eta hornitzeko txorrotak.
- Jabari publikoa mugatzen duten edo horietan dauden hesi hormak, hormatxoak, atakak.
- Kale, plaza eta espazio publikoetan dauden eserlekuak, iturri txikiak, plakak, aulkiak, loreontziak, apaingarriak eta beste elementu batzuk.
- Udalerriko argiteria publikoa bermatzen duten kale argiak, fokuak, argi multzoak, erregistroak eta instalazio elektrikoak, edo horien beste edozein elementu.

DISPOSICIÓN ADICIONAL

En esta Disposición se hará una clara referencia a las medidas de cooperación que este Ayuntamiento ha puesto en marcha con el Ministerio del Interior, para la integración social con el cumplimiento de penas sustitutorias.

DISPOSICIÓN DEROGATORIA

Mediante esta Disposición se deja sin efecto medidas y sanciones contenidas en algunas Ordenanzas Municipales vigentes en su ámbito sectorial.

DISPOSICION FINAL

**CAPÍTULO I - DISPOSICIONES GENERALES**

Artículo 1.- Objeto de la Ordenanza

Constituyen objetivos prioritarios de la Ordenanza:

1.- La prevención de actuaciones que alteran la convivencia ciudadana y la protección de los bienes públicos de titularidad municipal y de todas las instalaciones y elementos que forman parte del patrimonio urbanístico y arquitectónico del término municipal de Ribera Baja frente a las agresiones, alteraciones y usos ilícitos de que puedan ser objeto.

2.- Tipificar las infracciones y sanciones que podrían derivar de las actuaciones que por acción u omisión impidan, limiten la utilización de bienes, espacios o servicios públicos u ocasionen daños sobre bienes de dominio público.

3.- Promocionar y dinamizar los espacios públicos para fomento de actividades culturales y sociales ligadas a su destino público y al interés general.

Artículo 2.- Ámbito de Aplicación.

1. Las medidas de protección reguladas en esta Ordenanza se refieren a los bienes de servicio o uso públicos de titularidad municipal, tales como calles, plazas, paseos, parques y jardines, puentes, aparcamientos, fuentes, estatuas y esculturas, bancos, farolas, elementos decorativos, señales viarias, árboles y plantas, contenedores y papeleras, vallas, señales de tráfico y demás bienes de la misma o semejante naturaleza.

2. También están comprendidos los edificios públicos y todas sus dependencias interiores y exteriores (patios, soportales,…), centros culturales, colegios públicos, centros de salud, guarderías infantiles, instalaciones deportivas e instalaciones provisionales o efímeras que se ejecuten con motivo de la celebración de algún acto o festividad.

3. Esta ordenanza también se extiende a ámbitos que afecten a bienes comunes o que estén a la vista del público, a pesar de que estos no sean de titularidad pública. El ayuntamiento se reserva la potestad de sancionar estos actos, pero no a abonarlos económicamente.

Artículo 3.- Normativa vigente.

Con carácter general las obras reguladas en esta Ordenanza cumplirán las Normas y demás Disposiciones vigentes.

Artículo 4.- Utilización de los elementos e instalaciones del espacio público.

Se entiende por elementos y bienes que componen el viario y los espacios públicos y por consiguiente son de titularidad pública y reservada al uso común general y a modo enunciativo, los siguientes bienes y elementos:

- Los monumentos y fuentes ornamentales, así como los, columnas, cruces, hitos identificativos, farolas, etc., que aparecen en los parques, calles, plazas, fachadas, etc., que componen el Municipio de Ribera Baja.
- Los árboles, arbustos, conjuntos florales, jardineras, etc.
- Las bocas de riego, tuberías, grifos destinados al riego y abastecimiento de parques y jardines.
- Tapiales, muretes, cancelas que delimitan o están ubicadas en zonas de dominio público.
- Los bancos, pequeñas fuentes, placas, sillas, jarrones, elementos decorativos, y demás elementos que se ubican en las calles, plazas y espacios públicos.
- Las farolas, focos, grupos, registros e instalaciones eléctricas, que garantizan el alumbrado público del municipio o cualquiera de sus elementos.

- Bideak garbitzeko edukiontziak; beira, kartoia, papera, plastikoak, pilak, erabilitako arropa eta abar birziklatzeko edukiontziak; paperontziak; pneumatikoak eta antzekoak biltzeko harguneak eta instalazioak, etab. Eta bideen garbiketa bermatzen duten gainerako elementuak eta instalazioak.

- Kaleetan eta parkeetan dauden eta espazio eta erabilera publiko orokorrerako diren etxolak, publizitaterako euskarriak, kaleak identifikatzeko errotuluak, kaleen izenak dituzten errotuluak eta beste elementu batzuk.

- Zirkulazioaren zerbitzuak eta garraioa bermatu eta erabiltzeko diren autobus geralekuak, zirkulazioko seinaleak, semaforoak, termometria, barometria eta abar.

- Udalerriko sare elektrikoak, saneamendu eta hornidura instalazioak eta horietan dauden hodiak, kableak, erregistroak, txorrotak, ur harguneak eta abar.

- Telefonia eta komunikazio zerbitzuak bermatze aldera udalerriko bideetatik doazen telefonia instalazioak eta banda zabaleko kableak, baita gas hornidurarako instalazioak ere. Instalazio horien titulartasuna konpainia pribatuek dute, baina herritarrei zerbitzu emateko eta haien erabilera komunerako direnez eta emakida araubidean emateko direnez udalak babes ditzake. Horrenbestez, udalak diziplina neurriak ezarri ahal izango dizkie hornidura horiek eragozten edo zailtzen dituzten jarduketei, herritarren bizikidetzan eragina dutelako. Jarduketa horiek soilik egin daitezke ukitutako elementuen titulartasuna duten konpainiek horrela eskatzen badute, eta horien ordez beste batzuk jarrita.

- Lurpean eta airean dauden elementu publikoak.

### II. KAPITULUA. ONDASUN ETA INSTALAZIO PUBLIKOEN UDAL INBENTARIOA

5. artikulua.- Inbentarioa.

Ondasun higikorren eta higiezinen eta instalazio publikoen indarreko inbentarioa aplikatuko da; hain zuzen, Erribera Beitiako Udalak urtero eguneratuko du inbentario hori.

### III. KAPITULUA – INTERES OROKORREKO XEDEETARAKO ETA BIDEETAN INFORMAZIOA ETA SEINALEAK JARTZEKO ESPAZIO PUBLIKOEN OKUPAZIOARI BURUZKO ARAUAK

6. artikulua.- Seinaleak.

Udalerriko bide eta kaleetan.

1. Hiri bideetan ezin izango da zirkulazioko seinalerik jarri, udalaren baina eduki ezean.

2. Soilik baimenduko dira udal agintaritzaren ustez benetan interes orokorrekoak diren informazio seinaleak.

3. Debekatuta dago itsutu dezaketen edo erabiltzaileek semaforoak eta seinaleak behar bezala ikusteko oztopo diren eguzki oihalak, kartelak, iragarkiak eta bestelako instalazioak jartzea; baita erabiltzaileei arreta galarazten dien edo zirkulazioa nahiz geratzea zailtzen dutenak jartzea ere.

### IV. KAPITULUA - ESPAZIO PUBLIKOETAN DAUDEN HIRI INSTALAZIOAK ZAINDU ETA ERABILTZEKO ARAUAK

7. artikulua.- Ondasunen zaintza.

Udaleko ondasun eta eskubideak defendatu beharra.

1. Ondasun edo eskubide horiek kudeatu eta erabiltzeko ardura duten toki erakundeen menpeko agintari eta langileek, ondasun eta eskubideok zaindu, artatu, aprobetxatu eta arrazoiz ustiatu behar dituzte. Are gehiago, dolo, erru edo axolagabekeria larriz jardunez gero, egin diren kalteen erantzule izango dira erakundearen aurrean.

2. Toki erakundeak beti hartu behar ditu ondasunak kaltea gertatu baino lehen zegoen moduan uzteko beharrezkoak diren neurriak.

3. Herritar orok du, erkidegoko kidea den heinean, udal ondarea zaindu eta defendatzen laguntzeko eskubidea eta betebeharra; horretarako, kalteak gerta daitezen eragotzi behar du edo kalteak dagoeneko gertatu direnean agintari eskudunari horren berri eman behar dio.

- Los contenedores destinados a la limpieza viaria, contenedores de reciclaje de vidrio, cartón, papel, plásticos, pilas, ropa usada, etc., papeleras, bocas e instalaciones de recogida neumática, etc., y demás elementos e instalaciones que garantizan la limpieza viaria.

- Las casetas, soportes publicitarios, rótulos identificativos de calles y del nomenclator, y demás elementos utilizados en las calles, parques y destinados a servir a los espacios y al uso público general.

- Paradas de autobuses, señales de tráfico, semáforos, termometría, barometría, etc., destinados a garantizar y utilizar los servicios de tráfico y transporte.

- Las redes eléctricas, instalaciones de saneamiento y abastecimiento del municipio y sus tuberías, cables, registros, grifos, bocas de incendio, etc.

- Las instalaciones de telefonía y el cableado de banda ancha que discurren por las vías del municipio para garantizar los servicios de telefonía y comunicación, así como las instalaciones de suministro de gas. Estas instalaciones, si bien son de titularidad de las compañías privadas al estar destinadas al servicio y uso del común de los vecinos y ser prestadas en régimen de concesión, podrán ser objeto de protección por parte de este Ayuntamiento y las actuaciones que impidan o dificulten estos suministros podrán dar lugar a medidas disciplinarias por parte del Ayuntamiento al afectar a la convivencia ciudadana. Estas actuaciones sólo se realizarán en defecto o a solicitud de las compañías titulares de los elementos afectados y con carácter subsidiario.

- Elementos de titularidad pública ubicados en el vuelo y subsuelo.

### CAPÍTULO II. INVENTARIO MUNICIPAL DE BIENES E INSTALACIONES PÚBLICAS

Artículo 5.- Inventario

Será de aplicación el vigente inventario de bienes muebles, inmuebles e instalaciones públicas, para lo cual el Excmo. Ayuntamiento de Ribera Baja actualizará anualmente dicho inventario.

### CAPÍTULO III – NORMAS RELATIVAS A OCUPACIÓN DE LOS ESPACIOS PÚBLICOS PARA FINALIDADES DE INTERÉS GENERAL, INFORMACIÓN Y SEÑALIZACIÓN VIARIA

Artículo 6.- Señalización

De las vías y calles del municipio.

1. No se podrán colocar en vías urbanas señales de circulación sin la previa autorización municipal.

2. Solamente se podrán autorizar las señales informativas que, a criterio de la Autoridad Municipal, tengan un auténtico interés público.

3. Se prohíbe la colocación de toldos, carteles, anuncios e instalaciones en general que deslumbren, impidan o limiten a todos los usuarios la normal visibilidad de semáforos y señales, puedan distraer su atención o dificulten la circulación o el estacionamiento.

### CAPÍTULO IV - NORMAS DE CONSERVACIÓN Y UTILIZACIÓN DE LAS INSTALACIONES URBANAS EN ESPACIOS PÚBLICOS

Artículo 7.- Custodia de Bienes.

De la obligación y el deber de custodiar los bienes y derechos municipales.

1. Las autoridades y el personal al servicio de las Entidades Locales que tuvieren a su cargo la gestión y utilización de los bienes o derechos de las mismas están obligadas a su custodia, conservación, aprovechamiento y explotación racional, respondiendo ante la entidad de los daños y perjuicios que les sobrevengan por su actuación con dolo, culpa o negligencia graves.

2. La Entidad Local no podrá, en ningún caso, dejar de adoptar las medidas tendentes a devolver los bienes al estado anterior a la producción del daño.

3. Todo ciudadano tiene el derecho y el deber, como miembro de la comunidad, de colaborar en la conservación y la defensa del patrimonio municipal, ya sea impidiendo la realización de daños o anunciándolo a la autoridad competente en el caso que se haya producido.

8. artikulua.- Kalteak eta aldaketak

Debekatuta dago ordenantza honetan babestutako ondasunetan edozein jardun egitea, baldin eta jardunak ondasunaren erabileraren edo xedearen aurkakoa badira edo ondasuna hondatzea badakarte. Izan ere, ondasun hondatu dela ulertuko da apurtzen bada, ateratzen bada, suak hartzen badu, behar ez bezala mugitzen bada, publizitatea jartzen bazaio eta ondasuna zikindu eta hondatuko duen eta haren estetika, erabilera normala eta xedea kaltetuko duen materialak edo gaiak erabiltzen badira.

9. artikulua.- Ondasunen babesa.

Erkidegoaren hurrengo ondasunak eta elementuak babes berezikoak izango dira:

A) Landare elementuak, parkeak eta lorategiak babestea (zuhaitzak eta landareak manipulatzea; soropila zapaltzea; animaliak sartzea; obretako materialak uztea; zaborrak, harriak,... botatzea; sua piztea; bestelakoak).

B) Hiri altzaria eta apaingarriak babestea (eserlekuak; haur jolasak; paperontziak; iturriak; seinaleak; kale argiak; estatuak; apaingarriak…).

C) Ingurua babestea (mugatutako eremuetan jolastea eta kirolak egitea; publizitatearen gaineko ordenantza betez egitea publizitatea; udalaren lizentzia behar duten merkataritza jarduerak gauzatzea; udalaren lizentzia behar duten argazki erreportajeak eta filmatzeak egitea. Ibilgailuak zirkulazioari buruzko araudia betez ibiltzea…).

10. artikulua.- Ohitura onak.

Debekatuta daude eta, beraz, administrazio zehapena ezarri ahal izango zaie erabilera edo zerbitzu publikoko tokiak iluntzen edo zikintzen dituzten, horietan kalteak eragiten dituzten edo kalteak eragin ditzaketen ekintza guztiak; egindako kalteen erreklamazioa eta, hala badagokio, jurisdikzio penalaren eskumena kontuan hartu gabe.

11. artikulua.- Publizitatea.

Erabat debekatuta dago udalak berariaz baimendu ez dituen tokietan kartelak eta eranskailuak jartzea eta itsastea, edo horietan publizitatea egitea; gainera, bereziki debekatuta dago ekintza horiek egitea eraikin historiko-artistikoetan, adierazgarrietan eta berezietan, eraikin publikoetan eta hiri altzarian.

### VI. KAPITULUA - KAUTELAZKO NEURRIAK, ARAU HAUSTEAK ETA ZEHAPENAK. KALTEEN ERREKLAMAZIOA

12. artikulua.- Ikuskapen neurriak.

Udalak ordenantza hau betetzeko behar diren ikuskapen neurriak hartuko ditu eta, nolanahi ere, indarreko legerian ezarritako neurriak hartuko ditu. Horretarako, teknikari eskudunek, udaltzainek, zaindariek, zerbitzuburuek eta abarrek egindako txostenak arauzkoak eta baliozkoak izango dira.

13. artikulua.- Xedapen orokorrak.

1. Ordenantza honetan ezarritako debekuen eta betebeharren aurka doazen ekintza eta ez egiteek administrazioko arau haustea ekarriko dute; batzuei, gainera, kalifikazio penala ezarri ahal izango zaie.

